

2019ko Berrikuntza eta Inbertsio Aurreratua Sustatzeko 2i Plana

Helburua (2. eta 15 art.)	Bizkaiko enpresen gaitasuna handitzea, modu jasagarrian eta inguruarekin integratuta, lehiatzeko, berritzeko eta teknologikoki aurreratua diren inbertsioak egiteko, eta berrikuntza-proiektuetarako finantzazioa eskuragarriago egitea.																			
Erakunde onuradunak (3. art.)	<p>Bizkaiko enpresek, jarduera nagusia hauetariko bat badute: industria, eraikuntza, garraioa, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (I. eranskinean ageri diren arabera) hurrngo baldintzak betetzen badituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bizkaiko Lurralde Historikoan sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea lurralde horretan izatea. ▪ Gutxienez ekoizpen zentro bat, edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko LHan izatea. ▪ 5 eta 100 pertsona arteko plantilla edukitzea. ▪ Gutxienez, ondorengo bi mugetatik bat ez gainditzea. <ul style="list-style-type: none"> - 20.000.000 euroko urteko negozio bolumena. - 20.000.000 euroko balantze orokorra. ▪ Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea. ▪ Sexu arrazoiengatik diskriminazioaren bat gauzatzeagatik zigortuta ez egotea. 																			
Diruz lagundu daitekeen egitatea (4. eta 17 art.)	<p>I. kapituluak: Erakunde eskatzailearen lehiakortasuna hobetzeko jarduketak, bai berrikuntza teknologikoko zein ez teknologikoko proiektuen bidez, erakundearen edozein eremutan (prozesua, produktua, antolaketa, parte-hartzea, merkaturia, jabetzaren babes...) bai erakundearen negozio-ereduarekin koherenteak diren eta inpaktu handia duten inbertsio aurreratuen bidez.</p> <p>II. kapituluak: EELIF berrikuntza-funtsaren kargura emandako maileguak, I. kapituluaren jasotako diruz lagundu daitekeen egitatea dela-eta diru-laguntza jaso duten proiektuentzat.</p> <p>Mailegua eskatzea borondatezkoa da, eta Elkargi EBBren bitartez egin behar da. Diru-laguntza I. kapituluarekin bat jasotzek ez du eskubiderik ematen mailegua eskuratzeko; horretarako, EELIF berrikuntza-funtsaren arrisku-analisia gainditu behar da, eta BEAZek izaera berritzaileagatik emandako aldeko txostena jaso. EELIF berrikuntza-funtsaren maileguei buruzko informazio gehiago, esteka honetan: https://www.elkargi.es/eu/producto/berrikuntza-funtsa</p>																			
Diru-laguntza jaso dezaketek gastuak (5. eta 18 art.)	<p>I. kapituluak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiektuari zuzenean lotuta dauden kanpoko gastuak, diruz lagundu ezin diren gastuzat jotakoak izan ezik. ▪ Proiektuan diharduen langileriaren barruko gastuak, proiektuak dirauen bitartean proiektuan emandako lanari dagozkionak. ▪ Kontabilitate Plan Orokorraren 206, 212, 213, 215 eta 217 kategorietan eginiko ibilgetuko inbertsioak, enpresaren lehia-posizioa nabarmen hobetuko dutenak eta teknologikoki aurreratuak direnak. <p>II. kapituluak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ EELIF inbertsio-funtsaren kontura emandako maileguei dagozkien finantza-gastuak. 																			
Laguntzen zenbatekoa (6. eta 19 art.)	<p>I. kapituluak:</p> <table border="1" data-bbox="244 1368 1516 1518"> <thead> <tr> <th>Puntuak/ Kategoria</th> <th>Berrikuntzari eta bideragarritasun-azterlanei buruzko aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuei lotutako kanpoko gastuak</th> <th>Beste kanpoko gastu batzuk</th> <th>Aktibo finkoetako inbertsioak</th> <th>Barneko langileria-gastuak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>35-60 puntuak</td> <td>60%</td> <td>20%</td> <td>5%</td> <td>20%</td> </tr> <tr> <td>61-110 puntos</td> <td>70%</td> <td>30%</td> <td>12%</td> <td>30%</td> </tr> </tbody> </table> <table border="1" data-bbox="376 1529 1366 1603"> <tr> <td>Laguntzaren gehieneko zenbatekoa</td> <td>Laguntzaren gehieneko zenbatekoa barneko gastuengatik</td> </tr> <tr> <td>100.000 €</td> <td>25.000 €</td> </tr> </table> <p>Ez da 6.000 eurotik beherako diru-laguntzarik emango.</p> <p>II. kapituluak: Laguntzen zenbatekoa "EELIF inbertsio-funtsa"-ren kontura emandako maileguari dagozkion finantza-gastuen % 100 izango da.</p>	Puntuak/ Kategoria	Berrikuntzari eta bideragarritasun-azterlanei buruzko aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuei lotutako kanpoko gastuak	Beste kanpoko gastu batzuk	Aktibo finkoetako inbertsioak	Barneko langileria-gastuak	35-60 puntuak	60%	20%	5%	20%	61-110 puntos	70%	30%	12%	30%	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa barneko gastuengatik	100.000 €	25.000 €
Puntuak/ Kategoria	Berrikuntzari eta bideragarritasun-azterlanei buruzko aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuei lotutako kanpoko gastuak	Beste kanpoko gastu batzuk	Aktibo finkoetako inbertsioak	Barneko langileria-gastuak																
35-60 puntuak	60%	20%	5%	20%																
61-110 puntos	70%	30%	12%	30%																
Laguntzaren gehieneko zenbatekoa	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa barneko gastuengatik																			
100.000 €	25.000 €																			
Arautegia eta emakida prozedura (10. eta 22 art.)	<p>Argitaratzeke.</p> <p>Diru-laguntzak emateko prozedura hauxe izango da: I. kapituluarena norgehiagoka eta II kapituluarena norgehiagokarik gabekoa.</p>																			
Epeak (7., 8., 20. eta 21. art.)	<p>Diru-laguntza jasotzen duten proiektuak: 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko epearen barruan hasi eta bukatu behar dira.</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea: 2019ko martxoaren 18tik apirilaren 5eko 13:30etara arte, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.eu/sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.</p> <p>Mailegua sinatzeko epea: 2020ko martxoaren 31 baino lehen sinatu behar dira.</p>																			